Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Mahai-ingurua Oñatin 1

Oñati, Gipuzkoa



Aurkibidea

Biografia



Larraina auzoko Patxika Altube, Auzotxoko (gaur egun Marzelino Zelaia kalea) Susana Ugarte, Uribarriko Bittori Igartua eta Araozko Eustaki Bergara, denak baserrian jaio eta hezitakoak, elkarrekin ditugu tertulia honetan. Umetako eskola (edo eskola eza), umetako kantak, umeei (mutil eta neska) etxean irakasten zietena, umeen lanak, neska-laguntzea eta nobio kontuak, elizak gizartean zuen eragina, komenentziako ezkontzak, erditze eta emagin kontuak eta abar aipatu dituzte. Baita gerra denboran Oñatin ikusi eta bizitako pasadizo batzuk ere. Lihoa soroan eta ehungintza ezagutu zituzten, gazteak zirenean. Ezkerretik eskumara: Patxika, Susana, Bittori eta Eustaki.

Zintak

ONA-146

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa - Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2010-09-06
- **Iraupena**: 70 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

ONA-147

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa - Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2010-09-06
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Neskatilen lanak baserrian; umezain

- **Erref**: ONA-146/002
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:00:29. **Bukatu**: 00:02:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Denak baserrian jaioak dira. Umetan itaurrean egiten zuten. Eustaki ez zen eskolara joan, hori mutilen kontua zela eta. Neskatilen ardurak zeintzuk ziren: sukaldea, puxeta, jostea... Itaurrean eta umezain. Eustakik umetako kantu bat abesten du: "Lolotxo montaña".

2. Garainean umezain; "arre-arre mandako" kantua

- **Erref**: ONA-146/004
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:03:32. **Bukatu**: 00:05:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Franziska Garainean egon zen umezain, eta madame-ak frantsesez erakusten zizkien abestiak umeei. Garaineko Inazio-eta zaindu zituen berak; hara ezkondu zen, eta zazpi urte egin zituen han. Umea altzoan hartuta, "Arre arre mandako" kantatzen zutela dio Susanak. Umeak nola garbitzen zituzten, altzoan hartuta; Eustakik lihoarekin igurtzita, tinan.

3. Liñua I: haria egiteko prozesua

- **Erref**: ONA-146/006
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:05:41. **Bukatu**: 00:08:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Lihoa erreka bazterrean beratzen zen, liña-putzuetan. Sortatu, trangatu, gozatu eta haria egin. Latza zen lihoa. Aitajaunak egiten zuen, eta Franciscak hala ikasi zuen haria egiten. Goruarekin. Lihoa ezagutu du Eustakik: landarea nolakoa den. Trangan jo, eta barruko muina kendu. Azalarekin, sua. Eskuarekin gozatzen zuten. Haziak gorde, hurrengo urtean ereiteko.

4. Liñua II: noiz erein, noiz ebaki, ehulea

- **Erref**: ONA-146/007
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:08:40. **Bukatu**: 00:11:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Liñua noiz loratzen zen. Hazia erori egiten zitzaion, eta loratu aurretik ebaki behar zen. Gero zabal-zabal utzi, lehortzeko. Sortatxoak egin, matazak, putzuan sartu, eta astebete eduki. Trangatu. Ehulea Trianan zegoen. Ehuna arkan gordetzen zuten. Garbituaz bigundu egiten zen. "Subana", errekara puxeta jotzera.

5. Liñua III: izarak, Tetuan kaleko ehuleak

- **Erref**: ONA-146/008
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:11:57. **Bukatu**: 00:15:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Trianako ehuleari haria eraman eta hark egiten zuen ehuna. Joskura zeukan erdian izarak; karreteko hari sendoarekin egiten zuten hori. Bi ehule zeuden Oñatin, biak Tetuan kalean. Tetuan izenaren jatorria: Tetuaneko gerrarako kanoi bat egin zuten bertan, eta bost idi parerekin jaso zuten Brinkolara.

6. Triana auzoaren izena eta bertako errementariak

- **Erref**: ONA-146/009
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:15:01. **Bukatu**: 00:17:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:
Oñatiko Triana auzoaren izena nondik datorren kontatzen du Eustakik. Burdintxuenak mozkortutako mutilei esandakoa. Trianan baserritarrak eta errementariak egoten ziren. Baserriko tresnak bertan zorrozten eta konpontzen zituzten. Trillua.

7. Laiatik goldera, aldaketa handia

- **Erref**: ONA-146/010
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:17:20. **Bukatu**: 00:19:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Laian egiten zen dena garai batean. Makalena erdian jartzen zuten. Goldea atera zuten gero: golde txikia eta handia. Golde handia ez zuen edozeinek; alokatu egiten zuen. Bi idi pare. Goldean nola egiten zuten kontatzen du Eustakik; izkinak aitzurtu. Bi ahizpak anaia baino indartsuagoak ziren; Otalako Xantik esaten ziena.

8. Mutilen eta nesken lanak baserrian; itaurrean

- **Erref**: ONA-146/012
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:19:35. **Bukatu**: 00:22:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Neskatilen eta mutikoen lanak baserrian. Gaztagintza emakumeen lana zen. Tresnak konpontzea gizonena. Uztargileak. Uztarria enkarguz egiten zen. Burukoa. Itaurrean ibiltzea ez zitzaion inori gustatzen. Eustaki-eta Argiñenera joaten ziren itaurrean egitera; haiek ez zuten umerik eta beraiek hamabi ziren.

9. Jolastu beharrean, umezain; umeen jantziak

- **Erref**: ONA-146/013
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:22:49. **Bukatu**: 00:26:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Umezain, umetatik. Francisca Garainean ibili zen. Susanari erreala ematen zioten. Zazpi erreal irabazten zituen astean: jolastu beharrean umezain. Orduko pardelak; umeak nola janzten zituzten. "Paxia". Legazpiko bati gertatu zitzaiona, anekdota.

10. Garaineko neskameen kontuak I

- **Erref**: ONA-146/014
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:26:34. **Bukatu**: 00:30:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Eustakiren ahizpa Garainean egon zen neskame. Franciscak ere zazpi urte egin zituen Garainen umezain. Eustakiren ahizpa nolakoa zen. Haren kontuak: etxeko andreak jarri zion tranpa, fidatzekoa zen jakiteko, eta "señorito" esku luzeari eman zion zaplaztekoa.

11. Garaineko neskameen kontuak II

- **Erref**: ONA-146/015
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:30:04. **Bukatu**: 00:31:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Inazio Garairi ipurdia berotu zionekoa kontatzen du Franciscak. Gorputz Eguna; zikin-zikin egin zen baratzeko askan. Neskame eta umezain berriei jartzen zizkieten tranpak: dirua, janaria... Kurasanak nondik ekartzen zituzten.

12. Udatiarrak, autoak eta Apaolaza medikua

- **Erref**: ONA-146/018
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:35:37. **Bukatu**: 00:38:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Oporrak

Laburpena:
Oñatin bizi ziren familia aberatsak. Dukearena. Udan kanpotarrak ibiltzen ziren. Lehen automobilak: Garai eta Apaolaza. Eustaki elizan mareatu egiten zen, eta Apaolaza medikuarengana eraman zuen amak.

13. Araotzeko apaiza, Murgialdaikoa

- **Erref**: ONA-146/019
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:38:04. **Bukatu**: 00:41:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Araotzen Murgialdaiko seme bat zegoen abade: Don Martin. Eustakik ahizpari gertatu zitzaiona kontatzen du, komuniorik ez ziola eman paparra bistan zuela uste zuelako. Amak apaizari esan ziona. "Petxeroa" nola jartzen zen. Domekako arropa. Gaur egun nola den.

14. Infernua eta "kondenatuak"

- **Erref**: ONA-146/021
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:42:10. **Bukatu**: 00:43:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Eustakik kontatzen du behin sermoitik bueltan amak zuen larritasuna: apaizak esan zien umeren bat kondenatuta bazegoen haren gurasoak ere kondenatuta zeudela, eta berak hamabi seme-alaba! Semeak erantzun ziona.

15. Jaiotzak eta emaginak

- **Erref**: ONA-146/023
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:44:06. **Bukatu**: 00:47:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Erditzeetan medikua ez zen ondoan izaten, normalean. Susanaren ama etxez etxe ibiltzen zen, emagin. Eustakiren erditzeak. Francisca ere partera ibili da; bere betebeharrak. Liñuzko haria, zilbor-hestea lotzeko. Franciscak hazitako nesketako bat 21 urterekin hil zen.

16. Umea tititik noiz kendu; inudeak

- **Erref**: ONA-146/024
- **Iraupena**: 0:04:33. **Hasi**: 00:47:38. **Bukatu**: 00:52:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:
<p>Emaginaren lanak. Umeari titia ematea eta noiz zen titia kentzeko ordua.

Esnea ateratzea. Eustakiri inude joatea eskaini zioten, baina ez zuen onartu. "Mamadoreak". Franziskak ezagutu du hori.

17. Umeak aireplanoan eta Paristik; sexua tabua zen

- **Erref**: ONA-146/026
- **Iraupena**: 0:04:02. **Hasi**: 00:52:21. **Bukatu**: 00:56:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Umeak nondik zetozen. Aireplanotik botatzen zituztela umeak eta zelaian izara jarri behar zela esaten zieten. Izara ikusten zuten aldiro, pentsatzen zuten umea zetorrela. Paristik. Sexua tabua zen. Eustakiren nobioa ez zen etxera sartu ezkondu arte. Apaizari kontatu beharra. Musua ere bekatu. Orain, berriz, fraideak ere laztanka!

18. Neska laguntza; araoztarrak eta kanpotarrak borrokan

- **Erref**: ONA-146/028
- **Iraupena**: 0:04:04. **Hasi**: 00:56:40. **Bukatu**: 01:00:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Neska-laguntza normala zen, baina bidean musurik ez. Garaiz iritsi beharra. Etxekoak zain, leihotik begira. Araotzen lagunak ziren etxera laguntzen zien mutilak. Kanpotarrak ez zeuden ondo ikusita. Leinztarrak harrika hartzen zituzten. Makilakada ederrak eman zizkieten behin Aretxabaletako hiruri: larri zaurituta. Gerra aurrean.

19. Araozko erromeria eta dantzak

- **Erref**: ONA-146/030
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 01:00:51. **Bukatu**: 01:03:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Araozko esaera. Erromeria nolakoa izaten zen. Filarmonika. Dantza lotua libre zen; apaizak ez zuen ezer esaten. Bi neska dantzan ari baziren, bi mutil hurreratzen ziren. Kalabazak. "Amaittakua" jo orduko etxean.

20. Alabak aita ezagutu ez, itsasotik bueltan

- **Erref**: ONA-146/032
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 01:03:15. **Bukatu**: 01:04:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak

Laburpena:
Nobioarekin urtetan ibiltzen ziren, ezkondu aurretik. Eustakik senarra itsasoan zuen; ume txikiak ez zuen aita ezagutu, bueltatu zen batean.

21. Itsasgizonarekin ezkondu?

- **Erref**: ONA-146/034
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 01:04:40. **Bukatu**: 01:06:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak

Laburpena:
Anaiak Eustakiri esan ziona, itsasgizonarekin ezkontzeko asmoa zuelako. Diruduna hartzea gomendatu zion. Senarra ezkontza batera gonbidatu zuten, eta orduan ezagutu. Normala iruditu zitzaien.

22. Eustaki ekonomatoan lanean, 16 urtean

- **Erref**: ONA-146/036
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 01:06:49. **Bukatu**: 01:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Erretiroa hartu ostean, Garairen ekonomatoa ireki zutenean, lana eskaini zioten. Berak ezetz, baina tranpa egin zioten. 16 urte egin zituen han lanean. Senarra etxera bueltarazi zuen, 58 urterekin, eta gustura bizi izan zen Oñatin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-02

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com